

«Postpartum» luzerako eskubidea

**Oihane Larretxea
de la Granja**

Galdera absurdoenetik hasita («*zer nahiago duzu: neska edo mutila izatea?*»), galdera mingarrienetara («*zer izan da, deskuidu bat edo bila ari zinen?*»), hutsik egiten ez duen galdera mitikoenetik pasatuta, noski («*eta zu, noizko ama?*»). Ama izateak, nahi ez izateak edo ama ezin izateak baditu sarri zama handiko motxilak. Soinean jartzen dizkiguten motxilak, barruan gainetik astintzea zinez zaila den harritzarrak dituztenak. Aurreiritziak, iritziak, topikoetara kondeenak, balorazioak. Denak, ezjakintasunez josiak. Baldarrak, traketsak, itsusiak. Lekuz kanpo daudenak, joko kanpo uzten zaituztenak.

Gertatzen den haurdunaldi bakoitzaren atzean, gertatzen ez den haurdunaldi bakoitzaren atzean bezalaxe, istorio bat dago, bizipenak, arrazoiak, batzuetan zorionak eta beste zenbaitetan zorigaitzak. Diskrezioa, zuhurtzia, intimitatean ez xaxatzea eta, batez ere, errespetua. Asko eskatzea da?

Ama izatearen edo ez izatearen inguruko komentario “inozenteek” aspaldian eman zidaten atentzioa zentzu batean. Gizonezkoei zuzenduriko halakorik ez nuen entzuten; ez dira galdera deseroso horietakoak erantzutera behartuta egoten. Umeak egiten dituzte haiek ere, baina umetokirik ez dute. Eta horrek, nonbait, “libratu” egiten ditu.

Galderek eta balorazioek segitzen gaituzte etapaz etapa. Amatasunaren bidean, edoskitzaroan, adibidez. Biberioia emango baduzu, *zergatik*. Bularra auke-ratzen baduzu, *noiz arte*. Lanaldi osoan jarraitzen baduzu, ea ondo pentsatu duzun. Lanaldia murrizten baduzu, ea ondo pentsatu duzun. Bitartean, motxila berean pilatzen dira nekea eta harritzarrak. Bularrak txikitzen doaz eta algara egitean txiza galtzen duzu. Eta sabela-ren azalak ahul segitzen duen bitartean, galderak egiten ez zaizkien gizon horiek haurdunaldi paraleloan erritmo berean hartu zituzten kiloak galdu gabe segitzen dute. *Postpartum* luzerako eskubidea batzuen.

Salba ditzagun Gabonak

Koldo Sagasti

Gabonak salbatzea, horixe da EA-Eko Gobernuak larrialdi sanitarioari aurre egiteko darabilen estrategiaren atzean datzan motibazio nagusia. Ez dadila erritmoa gelditu, ikuskizunak jarraitu behar du. Irizpide zientifikoetan oinarritutako jardunbideak bestelako kudeaketa eskatuko luke, merkataritzaren etekinen aurrean pertsonen ongizatea eta osasun segurtasuna hobesten duena, baliabide publikoak osasun zerbitzu publikoak indartzera bideratzen dituen. Baina ezin dugu ekonomiaren makineria gelditzen utzi, gaitzaren kutsatze tasa ne-

gargarriek hori erabaki zentzudunena dela iradokitzen badute ere.

Ateo konbentzitua naizen aldetik, gutxi axola didate Gabonak bezalako ospakizun erlijiosoek. Amorrua ematen dit gehiengo sozialaren aginduz niretzat guztiz arrotzak diren konbentzionalismoen parte izan behar izateak. Logikarik oinarritzkoenetik kanpo ikusten dut, krisialdi larri batean murgilduta gaudela, gau osoan zehar Gabonetako milaka argi piztuta eduki behar izatea, areago hamarretan etxeratzeko agindua dagoenean. Iberdrolaren mozkinen logikatik baino ezin dut ulertu. Gogai-

karriak iruditzen zaizkit gabon kanta kirrinkariak, jaiotzak, desfile arranditsuak eta, oro har, egun seinalatu hauek inguratzen dituen parafernalia guztia. Baina nago Gabonak salbatzeaz ari direnean ez direla erritu multzo hori salbatzeaz ari.

Gabonak salbatzea diotenean Gabonen negozioa salbatzea esan nahi dute, etengabeko irabazien doktrinan oinarritutako makineria elikatzea, ekonomia bizitzaren gainean jartzea. Inpresioa ematen dit, inoiz baino gutxiago edanagatik, aurtengo ajea inoizko handiena izango dela. •